



# Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina  
28. alea | 2008ko Martxo/A | [nazioartea@euskaleskola.org](mailto:nazioartea@euskaleskola.org) |  
<http://www.euskaleskola.org/>

## CATALUNYAKO HEZKUNTZA LEGEAREN AURKA

Azken astetan mobilizazio ugari egon dira Catalunyan Hezkuntza Lege berriaren oinarriak direla eta. Lege hau onartuko zela esan zenetik irakasle eta ikasleen aldetik mobilizazioak egon dira. Azkena pasa den otsailaren 14an, arrakasta handiarekin: Bartzelonan 50.000 pertsona bildu ziren manifestaldian, adibidez. Zeintzuk dira, baina, PSCk proposaturiko lege honek dakartzan aldaketa nagusiak?

Pribatizazioan sakontzen du, errentabilitatea pedagogia edo lan-baldintzen gainetik jartzen duelako eta ikastetxe publikoak erakunde pribatuen gestioa edukitzea baimentzen du. Ikastetxe publikoei gomendio gisa eskola pribatuen eredia jarraitzea proposatzen die. Gainera botere handiagoa ematen dio zuzendariari, Eskola Kontseiluaren, Irakasle Klaustroaren eta Ikasle Asanbladen eskumenak alde batera utziz. Gainera eskolek kanpo zerbitzu pribatuak kontratatzekeo dituzten aukerak handiagotzen ditu.

Lege honek lan-baldintzen malgutasuna areagotzen du, bai ordutegi zein soldatetan. Lege honek, era berean, irakasleen kontratazioa zuzendaritzen esku uzten du eta mugikortasun geografikoa ikastetxearen esku ere uzten du. Irakasle bakoitzaren lan-baldintzak banan-banan negoziatzen dira, negoziazio kolektiboaren gainetik. Legeak, gainera, irakasleei egotzen die eskola porrotaren ardura, eta ez du kritikatzeko, adibidez, dauden baliabide eskasak, legeen aldaketa konstanteak edo ikastetxeen artean egon daitezkeen ezberdintasun soziokulturalak. Irakasleak kontrolatuak edukitzeko kanpo ebaluazioak egongo dira, eta ebaluazio horrek soldatetan eragina izango du.

Gainera ikastetxeak eskola-emaizten arabera ebaluatuko dituzte, ikastetxeen ranking bat sortuz. Rankingaren goialdean dauden ikastetxeek diru-laguntza hobeak izango dituzte. Baina ebaluazio horiek ikastetxeetatik kanpoko organoek egingo dituzte. Emaizta hobeak lortzeko bidean, agian, ikastetxeetan etorkinak jasotzeko prestaturik dauden gelak desagertzen dira. Etorkinak eskola berezietara joan beharko dira, segregazioan sakonduz eta integrazioa ukatuz, noski.

Gauza guzti hauek ebaluatzeko Agentzia berezi bat sortuko da. Oraindik legeak ez badio ezer ere ez (oinarriak baino ez dituzte finkatu) baina beste Agentzia batzuk sortzeko erabili diren metodoak direla eta kezka handia dago ikasle eta langile sindikatuen artean irizpide enpresarialak ez ote diren gailenduko.

*Informazio gehiagorako:*

<http://barcelona.indymedia.org/newswire/display/332212/index.php>

<http://www.sepc.cat/noalalec/>

<http://www.sindicat.net/vaga/eina396.pdf>

<http://www.youtube.com/watch?v=w4rUB9SAG7s>

## UNIBERTSITATEAN SARTZEKO SISTEMA BERRIA VENEZUELAN

Venezuelak aurrera darrai Iraultza Bolibartarra garatzen. Aurreko ale batzuetan hezkuntza lege berriak onartu direla aipatzen bagenuen, adibidez, irekiko ziren unibertsitate berriak edo curriculum bat sortzeko eginik pausuak, orain Unibertsitatean sartzeko sistema berri nahi dute, ikasle guztiek aukera izan dezaten. Ikasle talde kontserbadoreek jada euren haserrea erakutsi dute, doktrinatzeko bat dela esanez.

Geroz eta gazte gehiagok nahi dute unibertsitatean ikasi. 1999an 600.000 venezuelarrek hala egin zuten, eta Iraultza Bolibartarra dela eta 2006an 1.600.000 ikasle ziren. Venezuelaren lehenengo helburua ikasle guztiek unibertsitate sartzeko eskubidea eta baldintzak lortzea da, sozialismoaren bidean. Bigarren helburua Venezuelak dituen helburuak betetzeko balio duen unibertsitate bat sortzea da, eta sortzen diren adituak herrialdearen behar sozial, politiko eta ekonomikoak asetzeko gai izatea. Gainera helburu gisa jartzen da ikasleen eta eskualdeen unibertsitatea kontuan hartu behar dela ikasketak eskaintzeko garaian. Hori dela eta Unibertsitatearen “munizipalizazioa” egin nahi dute, hau da, deszentralizazioa areagotzea eta herrien esku uztea unibertsitatearen hainbat gai. Sistema berriaren beste helburu bat aurretik hezkuntzatik kanpo geratzen zirenak barneratzea da, hala nola, ezindua, jatorrizko herriak eta presoak.

Sistema berriak aurreko puntuak kontutan hartuz ikasleak Erregistro Nazional batean izena eman dezatela eskatzen du. Bertan euren egoera sozio-ekonomikoa, jatorria eta ikasi nahi dutena aipatuko dute. Horrela euren etxetik gertuen dagoen eta plazak dituen unibertsitate sartu ahal izango dira. Plazarik egon ezkerok eurek aukeratutako unibertsitate ere joan ahal izango dira. Erregistro honekin, gainera, unibertsitate bakoitzak dituen sarrera frogak deuseztatzen dira. Unibertsitatean dauden plazak emateko garaian aukera ekonomikorik ez duten ikasleek izango dute preferentzia. Batxilergoko nota kontutan hartuko da sarrerarako, baina ez zenbaki absolutu bat izango balitz bezala, baizik eta euren ikasgelarekin alderatuta. Honela auzo eta herri batzuetan egon daitezkeen egoera bereziak alde batera uzten dira.

Oraindik eztabaidan badira ere, 2008ko irailean martxan jartzea proposatu dute.

Informazio gehiagorako:

<http://www.mes.gov.ve/informa/publicaciones/SINIEEU.pdf> Informazio ofiziala.

## BRIGADAK BERRIRO ERE MARTXAN

Beste urte batez badatoz Askapenaren brigadak. Aurten ere internazionalismoa praktikan jartzeko aukera ederra dago, kanpoan ikasiz eta Euskal Herrian aplikatuz. Askapenak berak horrela deitzen du bere webgunean:

*“Brigada batean joatea aukera ona duzu internazionalizazioa janzteko, kasu honetan, herri batera joan eta herri horren borroka eta herri horren gureganako elkartasuna bustitzea. Borrokan ari den herri batetik borrokan ari den herri batera joaten gara eta helburua da apurka-apurka herriok elkarri laguntzea: Euskal Herriak herrien elkartasuna behar duela eta Euskal Herriak herriei elkartasuna eman behar dielako. Ez dago mundua beste era batera eraikitzerik, inperialismoa ala internazionalismoa.*

*Brigada batean joaten garenean, konturatzen gara herri horienganako elkartasuna piztu behar dugula gure herrian, konturatzen gara bizirik garen herria kapitalismoaren alde aberastuan dagoela eta gu herri eta norbanako bezala zapaltzen gaituztenak, beste herri batzuetan ere zapaltzaile direla, konturatzen gara, beraz, sozialismoa eta internazionalismoa gure herrian eraikitzearen beharraz, ez bakarrik euskal jendartearentzako eredurik justuena delako, munduko gainontzeko herrientzat ere justuena horixe delako baizik.*

*Horregatik brigadak joan eta etorriko bidaia dira: formakuntza lana, brigadan joan eta bueltan internazionalismoa eraikitzen laguntzeko konpromisoa hartu.*

*Internazionalismoa, Pakito Arriarenek zioen gisan, 'frente guztietan eta arlo guztietan': azken urtetako ildoari jarraiki, brigadak brigada arlo ezberdinak jorratzen ditugu: hizkuntza eta kultura, emakumeon borroka, ikasleona, gazte mugimendua, arlo antirepresiboa, langileak, laborariak... Finean, helburua herriaren artean arloz arloko zubiak eraikitzea da. Helburu horri begira, azken urteotan brigadak eta brigadistak ugaltzen joan dira, eta brigadisten lanak eta konpromisoak ere hobetu joan dira, horrek abalbidetu du pausuz pausu Euskal Herria internazionalistagoa izan dadin.”*

Informazio gehiagorako:

[http://www.askapena.org/berriak/men/karpeta\\_cu/433/ind\\_aska](http://www.askapena.org/berriak/men/karpeta_cu/433/ind_aska)